



EVSKAL  
i ZTEGI  
LABURRA

Etxebarria'tar Juan Anjel



# **EUSKAL IZTEGI LABURRA**

**(B-D)**

Etxebarria'tar Juan Anjel

---

**S. Anton'go Katekesia**

**Euskal-argitalpenak**

## AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemo-netako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren Joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B-D)

Euskalerrri'ko

neska-mutiko guztiai:

Gaurko umeak

biariko gizon.

Gizon naiz ume,

euskaldun nainon.

## O A R R A

Oiko irakurgaietan ain ezagunak ez diran berbak, batzuk Urduliz'en (B) ikasi dodaz. Esaterako: baragarri, basnera, beriki ta abar. Banaka batzuk idazle zarrengandik artuak dira. Olan, beardanezko (Iztueta). Adibideak, bardin, erriari artu dautsodaz batzuk, beste batzuk neuk asmatuikoak dituzu.

Irarkizunak Gallastegi'tar Kauldi'k eta Erretolaza'tar Joseba Andoni'k, San Anton'go apaizak, arteztu dabez.

Urrengo idaztian E-F izkiak azalduko doguz.

Ba. - Siñsterik eza adierazteko asperen-itza: Etorriko dala esan dau; ez dakit, bal / Badaren laburpena: Goazen, ba, ori ikustera.

Ba. - Ezbaia edo baldintza adierazteko: nere amak ba'leki! / Baiezkoa adierazteko: Ba-noa, ez larritu.

Baba. - Leka-barruan igalia dakarren landara.

Baba. - Soin-azala aundituten dauan zimurra.

Babalarru. - Soin-azaleango zimurra.

Babalasto. - Babaren gara / Alper eta arlote.

Babaloka. - Baba-azia biltzen dauan azal bigun-luzea.

Babatsu. - Babetan ugari

Babazorri. - Babak galtzen dauzan zomorroa.

Babes. - Aterpe, gordcleku: Zure babespean jartzen gara.

Babestu. - Babespean artu: Babestu gagizuz, Jaun onal

Badaezpada. - Zer gerta ere.

Badaezpadako. - Ezbaikoa, alan-olangoa: Badaezpadako euskaltzalea zara zu.

## B

Bae - Bealdean sarek sarratutako aro bat.



B A E

Bage. - Zerbaiten utsaz: gogo bage egin dot.

Bagetu. - Zerbait kendu; zerbait barik itxi: Diru guztiaz bagetu nabe lapurrok!

Bagilla. - Urteko seigarren illa.

Bai. - Esaten dana sendotzeko itza: Bai, egia da.

Baietz. - Bai, olantxe: Etorriko da? Baietz esan eban.

Baiezka. - Bai ta baika: Burauez baiezka ari da.

Baiezko. - Baietz-aldekoa: Baiezko keinua egin dau. / Baietz-antzera: Ori ere etorriko da? Baiezko lez esan eban atzo.

Baiki. - Bai, olantxe.

Baikor. - Baietza emoteko gerturik. / Gauzak alde onetik ikusten dauzana: Ezbearren artean ere, baikor agertzen zan beti.

Baimen. - Zerbait esan edo egiteko baiezkoa: Zure baimenaz, ba-noa emendik

Baiña. - Gogai bateri beste bat jarkitzeko erabilitako lokarri-itza: Euskotarra da, baiña ez euskalduna.

Baiño. - Ezezko gogaiari baiezkoa jarkitzeko itza: Ez da jakituna, jatuna baiño. / Alderatzearen lokarri-itza: Zu baiño gazteago naz.

Baita. - Bere bai.

Baitetsi. - Ontzat emon, artu.

Baitetxe. - Baiturak egiteko etxea.

Baitu. - Baietz esan / Baietza emon,

Baitu. - Ordaiña emongo dan ezaugarritzat, zer edo zer itxi: Soiñekoak ere baitu bear izan dodaz hizirik urteteko.

Baitura. - Zerbait baitu danekoa.

Bakalderri. - Errogeren menpeko erria.

Bakaldun. - Lurralde bateko agintari nagusi-bakarra.

Bakan. - Gitxitan ikusi edo egiten dana. Urria. / Oso gitxitan.

Bakar. - Bat baiño ez dana.

karraldi. - Bakarrean emoten dan aldia, Oiko arazoak itxi ta gogo-iñarku netan emoten dan aldia; Biar arratsaldean bakarraldia daukagu Begoña'n

Bakarrik. - Era bakarrera baiño ez. / Besterik ez: Ura bakarrik edan dozue jatorduan?

Bakarrizketa. - Bere buruagaz bakarrik izketan aritzea.

Bakarka. - Bat bakarrik artuta.

Bakartegi. - Bakarrean egoteko tokia. / Lekaideak lagunartean bizi diran etxea.

Bakarti. - Bakarraldian egotea maite dauana.

Bakatz. - Itz osotuak alkatzeko edo itzak lerro-azkenan bereizteko idazkeratza: Gogo-iñarkunak

Bakaulki. - Bakalduna jesarten dan lekua.



BAKAULKI

Bake. - Nasaitasuna dakarren onoiomena: Bakea lurrean gogo oneko gizonai.

Bakoitz. - Sail batekoa bakarka artuta; Zer barri munduan? Bakoitza bizi dala al dauan moduan.


Bakoitzasun. - Berez edo ostean bidez gauza edo notin bati dagokion zertzelada: Izakien bakoitzasunak Egiliearen adimen andia aldarrikatzen dausku.

Bakun. - Biurrikeri ta tolesgabe ari dana.

Bakuntasun. - Bakuna izatea.

Bala-Bala. - Barri bat zabal ibiltzea: Ezkontzeko egoala bala-bala zabaldu zan errian.

Balazta. - Burdi ta tramankulu en igikera geldiarazteko tresna.




BALAZTA

Baldin. - Ezbaia adirazten

dauan lokarri-itza: Baldin ondatzen ez ba'da, artuko dot nire gain.

Bale. - Arrain-antzeko bular-dun aberea. 30 metrotik gora azitzen da.



BALE

Balio. - Diranerako gauzak daben gaitasuna: Balio gitxi-koz dozu emen ango dirua

Bana. - Bakoitzak bat. / Ez bardiña: Irutasun Deuna, iru notin banak eta Jaungoiko bakarra.

Bana-Banako. - Onenetari-koa: Gaztai bana-banakoa atarako dautsuet.

Banakatu. - Batean egoana zabaldu.

Banaketa. - Bakoitzari berea emotea.

Banatu. - Zatitan zabaldu, zati egin.

Baragarri. - Txarra baiño txaragoa: Eguraldi baragarri onegaz, nora?

Baratz. - Etxe-inguruko lur-arloa: Baratzeko pikoak iru txortzen ditu.

Barau.-Jan-edanak itxi egitea  
 Baraurik. - Barau eginda ego-  
 tea.  
 Barautu. - Barau egin.  
 Barazki. - Jateko baratz-lan-  
 dara.  
 Bardin. - Beste baten antz-an-  
 tzekoa.  
 Bardindu. - Bardin egin. / Al-  
 deratu; Ori erri ederra?  
 Euskalerrri guztian ez da-  
 go onegaz bardintzekorik  
 Bardiñean. - Besteagazko ego-  
 kera bardiña dala; Bardi-  
 ñean neuk irabaziko da-  
 utsut.  
 Bare.-Eztitan, paketsu jarria:  
 Itxasoa bare dago.  
 Bare.-Arrastaka dabillen soin  
 -bera: A zelako pareta,  
 karakola ta bareta!  
 Baretu. - Baretu iarri, bare  
 ipiñi: Baretu zaitez, gizo-  
 na, itz egin baiño len.  
 Barne. - Begira: Barru.  
 Barranda i.-Zelatan dagoana.  
 Barreatu. - An-emen zabaldu  
 Barren - Beko azken alde./  
 Barrua.  
 Barroneko. - Barrenari dago-  
 kiona.

Barrenkor.-Gauzak barru ba-  
 rruuraino ikusi-egin edo  
 ikasteko gai dana.  
 Barrez.-Barre egiñaz: Begiak  
 barrez-barrez, biotza ne-  
 garrez.  
 Barri. - Lenengoz agertzen  
 dana.  
 Barriro.-Ostera be: Esan ba-  
 rriro, mesedez.  
 Barritan. - Barri-aldian: Ba-  
 rritan txabola guztiak jau-  
 regi-itxura.  
 Barriz.-Ostera be: Ona barriz  
 ba'zatoz txitxiña egin be-  
 ar zaitut/Aldiz, ostera: Ni  
 lanean gelditu barik; zu,  
 barriz, ao-zabalik niri be-  
 gira./Gaiñera: Gizon lan-  
 gi'lea ta aberatsa dozu  
 ori. Ona, barriz.  
 Barru.-Kanpokoaz besterakoa  
 Barruti. - Esi-arteana dagoan  
 lekua. / Lurralde bati da-  
 gokion alderdia: Flavrio-  
 biga'ko eliz-barrutia.  
 Barrutiko. - Barruko aldetik  
 datorrena: Emen ez dogu  
 ondo entzungo, barrutiko  
 zarata orrekin / Gizonak  
 alkondara-pean daroen  
 janzkia: Alkondara barri  
 onegaz ez noa barruti-  
 korik ipinten.

Bart. - Atzoko gabean.

Basajaun.-Eusko Mitolojiaren  
 gizona.

Basati. - Basoan lez, basoan  
 bai'legoan bizi dana: Erri  
 setati ori, basatia da o-  
 raindik.

Baseliza. - Leku-eremuetan  
 egoten dan eleiza txikia.



B A S E L I Z A

Baserri. - Menditarren erria:  
 Zuok baso-erri zaria, ta  
 zuok vaso-erri



B A S E R R I - (B A S E T X E)

Baserritar -Baserrian jaio edo  
 bizi dana.

Basetxe. - Baserriko etxea:  
 Basetxe, aberri-jauretxe.

Basitu. - Koipez edo gai koi-

petsuz igurtzi. / Ogia sal-  
 tsan busti.

Basnera. - Artoa labatik iga o  
 baiño len, labako autsak  
 atarateko tresna.

Baso. - Zugatzez beteriko lur  
 zabala.

Basta. - Zamariak daroen za-  
 ma-zorroa.



B A S T A

Basurde. - Narru gogorreko  
 bulardun piztia, basoko  
 urdea.

Bat. - Bakarra dana.

Batan.-Usain oneko landara,  
 orri uletsu-antzekoak di-  
 tuana.

Batasun. - Diranak batera jo-  
 tzea.

Bateatu. - Bateo-ikurtona e-  
 mon, artu.

Bateo. - Eskerra emonaz kris-  
 tau egiten gaituan Eleiz-  
 ikurtona.

Batera. - Bat egiñik: orretan  
 batera gabiltz./Une bere-  
 berean: Ori esanaz batera,  
 jo egin ninduan.

Bateratu. -Batera jo.

Batez be. - Guztien gaiñetik.

Bitu. -Bat egin: Batu gaitezan Gernika'ko zugazpean.

Batz. -Asko bat eginda: Eleiza, Doibatza.

Batzaldi. -Leku bateko jendetza./Zerbaiterako Leiaketa: Tolosa'ko olerki-batzaldia.

Batzar. -Zerbaiti buruzko batza: Gernika'ko batzarretan Erregek zer egiten eban?

Batzarkide. -Batzar baten artukizun dauana.

Batzoki. -Gizonak batzen diran etxea: Montekarlo'ko batzokian.

Batzorde. - Gai baten ardura dauken notiñak: Liturji-batzordekoak.

Batzuk. - Bat baiño geiago.

Batzutan. -Bein baiño geiagotan.

Bazkaldu. - Eguediko jatordua egin.

Bazkari. - Eguediko jatordua, jatekoa.

Bazkide. -Bazkun bateko notin banak.

Bazkun. - Elburu batera doazan gizonen batza: Eus-

kaltzale-bazkuna.

Bazter. - Ondoko ingurua / Txokoa: Kamiñotik ez joan, etorri bazterretik./ Bazterretan: an ta emen, ortik zear: Amaika euskaltzale zintzo dago oraindiño bazterretan!

Baztertu. - Bazterrerera bota.

Be. - Leku baten azpi-aldea: Celako bea bustita egoan/ Bea (lur) jo: aunatu, oso-ro jausi, porrot egin: Bea jota nago beararen bearrez; etxe zar otrek laster bea joko dau; nire arazo andiak bea jo bear dabe bide onetatik.

Bear. -Itxi eziñekoa dana: Diruaren bearra, askoren barruko arra. / Egipena: Lenengo bearra, urrengo pitxarra.


Bear-bada. Diteketasuna adierazten dauan itza: Biar etorriko da nigaz, bearbada.

Beardanezko. - Arira, egoki datorrena: Orixe dozu jokabide beardanezkoena zure elburura eltzeko.

Bear izan. -Zerbaiten bearrean egon: Ez litzake olan izan bear. Bear ez ba' dozu, itxi betiko euskaltzaletasuna.

Bearrean. - Gauza baten orde

## Pirineo-mendiez araindiko EUSKALERRIA



BENAPARROA. . . 1.284 km.<sup>2</sup> . . . Donibane-Garazi.

LAPURDI. . . . . 800 km.<sup>2</sup> . . . Baiona.

ZUBEROA . . . . . 785 km.<sup>2</sup> . . . Lixarre. (Mauléon)

beste bat jaso, egin: Erosi bearrean, sal tu egin eban

Bearreko. -Bear dana: Zuk be ainbat gauza egin dozuz atzera, aurrera egin bearrekoak.

Bearrezko. -Zerbaiterako bear-bear dana: Euzkalduna izateko, euskera bearrezkoa da.

Bearrik. - Ordu onean, zorionean: Cure abade geiñak eusko-semeak dira, bearrik.

Beartu. - Zerbaiterako bearra sortu, egotzi: Beartu egin nabe ori esaten.

Beatz. - Oin-atza.

Beazun. - Gibeletik darion ur

likitsa. / Samintasun, laz-  
tasuna: Bizitzaren bea-  
zuna gaztetatik edan bear  
izan neutsun.

Bedegar.-Berebizikoa: Gorro-  
to bedegarra dautsoe ba-  
tzuk euskerari.

Bedeinkatu. - Eskua zabaldu-  
rik, otoika, ta kurutzeka,  
zerbait erabilli.

Bedeinkatu. - Bedeinkapena  
arturikoa. / Zori onekoa:  
Gernika'ko arbola da be-  
deinkatua, euskaldunen  
artean gutziz maitatua.

Bederatzi. - Zortzi ta bat.

Bederatziurren. - Bederatzi  
egun jarraikoetan eginiko  
elizkizuna, otoitzez, itzal-  
diz eta abarrez.

Begi.-Ikusteko dogun soin-  
zattia.



B E G I

Begiko.-Atsegingarri yakuna:  
Mutiko begikoa da zure  
ikasle ori.

Begira. - Begiak ara jarrita:  
Zuri begira nago, maite-  
tsu; batzuk zerura begira  
ta beste batzuk lurtean

birata bira. / Zain: Zure  
begira nago, amatxu; la-  
gunen begira naukazu  
emen ordu ta erdian. /  
Kontuz: Begira, gero, zer  
dagizun!

Begirakun.-Begiratu egitea.

Begirapen.-Begiak nunbaiten  
tinkatzea: Zelako begira-  
pen zorrotz eta sakona  
daukan pizti orrekl / Zer-  
bait edo norbaitekiko mo-  
du onez aritzea: Berba  
egiozu ugazabari begira-  
penez. Erakutsi egiezu  
aita-amai begirapena.

Begiratoki. - Begira egoteko  
lekua; Etxe onek begira-  
toki eder-zabala dauka.

Begiratu. - Begiak zerbaiten  
jarri.

Begiztatu. - Begiz jo, ikusi.

Bei. - Zezenaren emea.

Bein. - Aldi baten.

Bekain. - Begi-gaiñeko atal-  
uletsua.

Bekaitz. - Ezin-ikusia.

Bekaitzi. - Bekaitzez dagoana

Bekatu.-Itzez, gurariz, goga-  
menez, egitez edo egin  
ezaz Jaungoikoaren legea  
austea.

Bekoki.-Arpegiaren goikaldea

Bela.-Txori aragi-jalea, luma

baltza.

Belardi.-Bedarra ugari dagoan  
lekua.

Belarri.- Entzumenaren gor-  
putz-atala.



B E L A R R I

Belarrondoko. - Belarrarian  
emondako zartakoa.

Belaun. - Iztarra ta anka ba-  
tzen dauzan soñaren ata-  
la;



B E L A U N

Belauniko.-Belaunak lurtean  
jarrita.

Belu. - Berandu.

Benetako.-Bear dan lakoa.

Benetan. - Bear dan eraz.

Berandu.- Sasoi egokia igaro  
ta gero.

Berantz. - Be-aldera.

Berariz.-Zeozetarako era ego-  
kiz egiña.

Berarizko. - Berariz egiña.

Beraz. - Oiretara ezkeror; ori  
olan dala.

Berbadun. - Berbaz daragoio-  
na; Len zinea ixilla izaten  
zan; orain, barriz, berba-  
duna (Zeanuri)

Bere.-Irugarren bateri dago-  
kiona: Nirea nire, zurea  
zure ta berea gure.

Bereala.-Luzaro bage.

Berebat. - Era berean.

Berebiziko. - Ari-arira, oso  
egoki datorrena; Bere bi-  
zikoa dozu idazti ori eus-  
kera ikasteko.

Beretu. - Berea egin, beretzat  
artu.

Berezi. - Arduraz aukeratua.

Berezkatz. - Idazkeran itz bi  
bereizteko erabillitako a-  
tza (?). Euskeraz era bi-  
tan erabilli oi da: 1.º,  
aditza baldintzazkoa dan-  
nean: etorri ba'da, ona  
ba'litz. 2.º, berarizko ize-  
nak atzizkietatik bereiz-  
teko: Bilbo'n jaio nintzan,  
Andoni'ren lagunak.

Beriki. - Laba-barruan artoa-  
ri eragiteko tresna.

Bero.-Kanpotik datorren gi-



roa eurena baiño andia-  
goa danean, gorputzak  
nabaitzen daberen ozkia!

Eguzki onegaz bero an-  
dia da! Bai, bero-beroa.



BERO -  
NEURKIN

Beroneurkin. - Gor-  
putzak daberen be-  
rotasuna igartzeko  
tresnatxua.

Berotu.-Beroa emon  
/Zerbaiterako as-  
mo andietan jarri:  
Euskera ikasi  
bear ebala-ta, on-  
do berotu gen-  
duan a.

Bertako. - Ango lekukoa.

Bertakotu.-Bertako egin / Ber-  
tan egotez geratu/Bertako  
erara jarri.

Bertan.-Leku aretantxe.

Bertatik -Leku aretxetatik/Be-  
realaxe: Aren arrazoia en-  
tzun ebanean; erantzun  
eutson bertatik. . .

Berun.-Menasta aztuna, mar-  
go arrea.

Beruntz.-Be aldera.

Berpiztu.-Ildakoari bizia atze-  
ra emon / Norbera barrero  
bizira biurtu.

Besadar. - Zugatz baten adai  
nagusia.

Besarkatu.-Beso artean artu,  
besoakaz inguratu.

Beso. - Sorbaldatik  
eskura doan soin-  
atala.



Beste. - Norbera ez  
dana; Ni emen-  
dik joango naz,  
bestea ortik / Ai-  
ña; Zuk beste  
daukagu guk.

B E S O

Bestela - Beste era batera:  
Bestela egin leiteke ori, ta  
obeto, agian.

Bestelako.-Beste era batekoa  
dana: Olan ez, bestelako.  
nai dot buru-zapia / Erdi-  
purdiko, alan-olango, edo;  
Bestelako amets zikiñak,  
zuk izan dozuzanak!

Bestera - Okerretara: Bestera  
egizu ta asmauko dozu;  
Jaungoikoaren boronda-  
teaz besterakoa dan guz-  
tia pekatua da,

Beta. - Une egokia; Ez neban  
betarik izan ta ez nintzan  
araño joan / Gogo-giroa:  
Betaz zabiltz gaur?

Betagin. - Alboko agin sen-  
do-zorrotza.

Betaurreko. - Ikusteko erabil-

ten dogun tresna.



BETAURREKO

Betazal. - Begien azaleko na-  
rrua.

Bete.-Utsik egoana bardindu:  
Bete zulo ori lastoz, edo./  
Bat: Urtebete, astebete;  
pitxar bete ur edan gen-  
duan.

Betebear. - Norberak bere  
gain daukan egitekoa.

Betegarri.- Utsune bat bete-  
tzen dauana / Neurtitzen  
neurria betetzearren sar-  
tzen diran bear-gabeko  
itzak; Orixe'k bere oler-  
kietan betegarri gitxi era-  
billiko dautsuz.

Betekada. - Lar jan-edanaz  
asetuta gelditzea. Beteka-  
da galanta egin genduan  
bart orren lepotik.

Beti.-Aldi guztian.

Betiko.-Betidanik dana: Jaun-  
goikoa betikoa da./Betira-  
ko dana: Inpernua beti-  
koa da.

Betikotasun. - Betiko irautea:  
Zoriontsuak izango gara  
betikotasun guztian.

Betillun.-Betarte illuna: Gau-  
zak oker urten arren, ez

ibilli bein be betillun.

Bezala. - Legez.

Bezelako. Bardin: Ama begi-  
ra zazu leiotik plazara,  
ni bezelakorikan plazan  
bai ote dan!

Bezero. - Lanbidedun ba-  
tengana laguntza-billa e-  
do joaten dana: Lege gi-  
zonaren bezeroak, edo  
lapurrak edo leloak.

Bi. - Bat eta bat.

Biago. - Bazkal-ondoko lo-  
taldia: Biagoa egiten da-  
go, ez iratzartu.

Biar. - Gaur-gerokoan : aur-  
biarretan amaituko dogu.  
Gaurko ta biarko egunen  
barruan amaituko dogu.

Biaramon.-Edozein egunaren  
urrengoa.

Bidazti. - Bidez doana: Bidaz-  
ti gazteak asti gitxi ta bi-  
de luzea.

Bide,-Ibilteko toki-unea: Ze-  
rurako Bidea, euskal idaz-  
ti baten izena. / Eretia:  
Zeregin ori galbide ez da-  
kizun, kontuz./Ba-dirudi,  
antza: Etorri hide zan  
(etorri zan, antza)/ Arra-  
zoia, zergaitia: Jokua dala  
bide amaika asarratu dira  
betiko.

Bide batez. - Beste norabaitekoan: Neu joango naz zuzera, bide batez, zure ama ikusiko dot.

Bideburu. - Bide bi batzen diran tokia.

Bidegabe. - Izen onean edo zuzenbidean inori egindako kaltea.

Bidegabekeri. - Egindako kalte edo min andia.

Bidegabeko. - Arrazoi edo zuzenbide gabekoa: Bidegabekoa deritxot zure jokabide orri.

Bidekatu. - Bidea galdu; bide-tik urten.

Bidenabar. - Beste norabaitekoan.

Bider. - Aldi: Amaika bider esan dautsut ezetz! Azkenengo biderrez diñotsut, gero!

Biderakusle. - Bidean gidari doana.

Bideratu. - Bidera joan, eroan.

Bidetxigor. - Bide estua: Lasterka bidetxigorretatik erromerira etorri gara.

Bidezko. - Zuzenbidez eta arrazoiez eginikoa: Bidezkoa da norberan gauzak eskatzea.

Bigarren. - Lenengoaren urrengo.

Bigun. - Ikututean samurra; Oe biguna ipini egidazu./ Gozo: A zelako begi bigunak daukazan andra orrek.

Bikain. - Balioz, ontasunez eta besteen gainetik dagoana: Idazti bikaina; pago bikainak egozan len gure basoetan.

Bikoiztu. - Alako bi egin.

Bildots. - Urtebete baino geiago ez daukan ardi-umea.

Bildu. - Batu, bateratu.

Bilduma. - Batuketa, sorta; Olerki-bilduma ederra naidozu erosi? Or, "Milla Euskal Olerki Eder" idaztia.

Bildur. - Gogoaren larria: Bildur naz galduko ete diran.

Bildurgarri. - Bildurra sortzen dauana.

Bildurti. - Bildurrez egon oihana.

Bildurtu. - Bildurrez egon, bildurra sartu.

Bilin-balan. - Alde batera ta bestera: Bilin-balanka doa burdia

Biltoki. - Biltzeko tokia; Eus-

keran izan bedi zuen batgarri, zuen biltoki.

Biltzar. - Asmo batez batutako notinak: Baiona'ko eskaldunak euren biltzarrak egiten dabez urtero.

Billa. - Zerbaiten atzetik, galez, joan: Zure billa nentillen.

Billabide. - Billatzeko bidea: Agertutako idazki guztien billabide bat egin bear daustazu.

Billakatu. - Biurtu: Urteen buruan, jakitun andia billakatu zan.

Billaketa. - Billa ibiltea: Emen-go artxibuetan billaketa andia egin dot.

Billatu. - Billa ibilli.

Billebaiketa. - Zil-musturraren zatitxo bat biribillean ebagitea.

Billebaitu. - Zil-musturraren zatitxo bat biribillean ebagi.

Billera. - Batzarra.

Billoizik. - Aragi gorritan.

Billoiztu. - Billoizik itxi, geratu.

Bina. - Bakiozak bi.

Biotz. - Odola ibilliarazten dauan soin-atala.

Biotzez. - Maitez eta txeraz.

Biozbera. - Errukiz eta maitati diarduana.

Biozkada. - Biotz-taupadak/ Biotzaren eraginak: "Biozkadak" "euzkal-idazti baten izena da.

Bioztun. - Biotz andiz jokutzen dakiana.

Bipil. - Cogotsu, bizkor eta ausarta.

Bira. - Itzul-ingurua: Lurra bira-biraka, Gurutza aldatzaka, "Stat Crux dum volvitur orbis"

Birao. - Jaungoiko, Andra Maria edo Deunen aurkako esan-eginak.

Biribil. - Obo-antzekoa.

Biribildu. - Biribil egin, biurtu

Birika. - Arnasa artzeko soin-atala.

Biro. - Janaria bertan sartuteko egaztiak daben zorroa/Gizonaren urdailla (etxeko izketan): Ene mutiko, goiz guztian ogia jaten zabiltz; zuk daukazu biroa!

Birindu. - Auts egin, biurtu; arras suntsitu: Tito'ren

gudariak Jerusalem birrin-  
du eben.

Bitsuts. - Aize-edurren eraun-  
tsia.

Bitan. - Bi biderrez.

Bitargi.-Euritan daneko bare-  
unea.

Bitarte. - Aldi edo leku biren  
arteko unea; Bitarte one-  
tan amaituko dogu gure  
lantxoak.

Bitarteko.-Beste biren artean  
arazo bat antolatatu edo  
konpontzeko jartzen da-  
na: Mikel Deuna, gure bi-  
tarteko leiala.

Bits. - Begira: Apar.

Bitu. - Alako bi egin.

Bitxi. - Urre-zidarrezko giza-  
apaingarria: Andra arek  
bitxi ederrak eroaten zi-  
tuan aldean beti./ Bakan  
eta arrigarria: Esaera bi-  
txia, zuk jakli dozuna ere!

Biur. - Biribilduaz okertua.

Biurgune. - Zerbait biur dan  
lekua: Kamiño onek bere  
biurgune itzalak daukaz,  
Iruña'ra zoazala.

Biurri. - Biribil-antzean oker-  
tua: Adar orreik ondo biu-

riak dira./Gatxa be ga-  
txa; Orren erdera biurria  
da./Gutziz okerra; Mutiko  
biurria urten dausku se-  
me onek.

Biurrikeri. - Okerkeri andia;  
Oindiño bere biurrikeri-  
ren bat egingo dausku  
gure lagun onek!

Biurritu. - Biurri egin: Samea  
biurritu bear dautsot, ma-  
keto zantar orrerik!

Biurkor. - Biurritzeko errez da-  
na: Biurkorra da burdin  
au.

Biurpen. - Biurritu egitea. Iz-  
kuntza batetik bestera al-  
datzea: Idazti eder onen  
biurpena zeuk egingo  
zeunke?

Biurtu. - Atzera joan, etorri:  
Biurtu da zure aita Españi-  
ñ'tik?/Atzera emon, bial-  
du: Biurtu dautsozu izen  
ona zapaldu zenduan Erri  
ari?

Bizar. - Mosuan urteten dan  
ulea; Bizarra lepoan kal-  
tea dagianak.

Bizargille. - Bizarra moztuten  
dauana: Bizargille onek  
bizarra egin bitartean,

izarrak ikusiazoten dan-  
tsuz.

Bizartegi. - Bizarra kentzeko  
etxea.



B I Z A R T E G I

Bizi.-Izakia ari dauan indarra:  
Jaungoikoak emon euskun  
bizia.

Bizi. - Biziz ari dana: Sardiñ  
bizi-biziak! / Zoli, ozen:  
Egizu deadar bizi bat,  
bestela euskaldun orreik  
ez dira itzartuko.

Bizibide. - Norberak bizia au-  
rrera atarateko daukan  
egitekoa: Zein bizibide  
aukeratu dau zure semeak?  
Futbolari gura dau izan..

Biziera. - Bizia emoteko, igaro-  
teko, era: Etxean otso,  
kanpoan uso; alako bi-  
ziera gaizto.

Bizi izan. - Biziz egon: Nor  
bizi da emen?

Bizikera. - Biziera.

Biziki. - Asko be asko: Biziki  
poztu nintzan.

Bizileku. - Bizia igaroteko le-  
kua: Antxiña gizonaren  
bizilekuak artzuloak ziran

Biziro. - Txito: Zibillak esan  
naute (didate) biziro ego-  
ki... (Iparragirre).

Bizitasun. - Bizi-bizirik egotea,  
izatea: Beste bizitasun bat  
dauka Labeguerie'ren abo-  
tsak.

Bizitegi. - Bizileku.

Bizitu. - Bizia edo bizitasuna  
emon: Arein gogoak ze-  
lan bizitu ebazan gure  
itzaldia!

Bizitz. - Bizitza.

Bizitza. - Izakia ari dauan in-  
darra: Bizitza dan ederra  
/Etxe bateko bizi-tokia:  
Irugarren bizitzan bizi da  
Unai.


Bizkar. - Giza-soiñaren atala,  
sorbaldatik garriraiño doa-  
na.

Bizkor. - Arin: Erdu ona, biz-  
kor; emen gure atso biz-  
korra.

Bizkortu. - Bizkor gertatu,  
biurtu; Bizkortu zaitez,  
bota gexo guztiak urrin./  
Gaixoaldiaren ondoan go-  
gortu: Bizkortu orain len-

- baitilen.
- Bizpairu. - Bi edo iru.
- Biztanle. - Leku bateko bizi-laguna; Erri onek zenbat biztanle daukaz?
- Biztu. - Bizia emon; Biztu apur bat gogo ori ta zatoz. / Sutan jarri: Biztu argia; biztu su apur bat, berotzeko; biztu egidazu errekin au.
- Biztuera. - Bizitzara biurtzea: Ildakoen biztuera.
- Bokarta. - Arrain mueta bat
- Bolu. - Errota.
- Bonbil. - Ura-ta gordetzeko ontzia, sama labor estua.
- Borda. - Etxola.
- Borondate. - Zerbaierako bultzaten gaituan gogo-indarra.
- Borreru. - Eriotz-zigorra egiten dauana.
- Bosna. - Bakoitzak bost.
- Bost. - Lau eta bat.
- Bosteko. - Eskua: Ekazu bosteko ori, aspaldiko.
- Bostortz. - Bost ortzeko goldea.
- Bota. - Sakatuaz gauza bat beste norabai: era bialdu: bota erdira pelota ori.

- Bozkario. - Poz andia.
- Bukatu. - Amaitu.
- Bular. - Lepotik sabelera inoko soin-atala.
- Bulartsu. - Adorez jokatzen dakiana: Areik gudari bulartsuak!
- Bultz. - Indarrezko sakatzea.
- Bultzatu. - Bultz egin: Zerk bultzatu zaitu ori egiten?
- Bultzi. - Burdinbidez doan burdia.
- Burdi. - Culpil biko oltza.



BURDI

- Burko. - Ogean gagozala, burua etzatzekoa.



BURKO

- Buru. - Giza-soinaren goiengo atala: Zenbat buru ainbat aburu; bururik ez ta tx-

pela nai. / Nagusi: Euskalerrikouri-burua Gernika dogu; maipurukoak olantxe erabagi eben. / Norbera: Buru-critxia; burua lotsatu inork ez dau egiten; / Alde gorengoena: Or bideburuan dagoan etxetxoa.

- Burubide. - Aolkua.
- Burugabe. - Bururik ez daukana / Zentzun gitxikoa: Ez zaitez burugabe izan ta ikasi ondo euzkera.
- Buruko. - Buruan daroagun zapia, txano-ta. / Bakoitzari: Zazpi ogerleko emon ebezan buruko.
- Bururatu. - Gogoak emon: Zelan bururatu yatzun euskera ikasi bear zenduala? Euskotarrak min ez eta gogoz nastatuta ikusi ta gero.
- Burusi. - Oerako berogarria: Burusi lodi, arrausi andi, datorrela negu-aldi.

Burutan. - Gogoan euki: Artuizu burutan nire aolkua. / Burutan ipini; Burubidea ekarri: Nork ipini dautzu burutan, euskaldunak dirala munduko buztan?

Burutu. - Ameia emon; aurre-  
ra eroan: Lan ederra burutu dozu.

Buruz. - Zer bait dala-ta; zer-

baiti dagokiola: Cai orri buruz egin genduan azkenengo batzarra.

Buruzagi. - Nagusi: Gudari arein buruzagiak atzerriera joan ziran gudu-ostean.

Burdin. - Menasta-mueta bat.

Burduntzali. - Metalezko ontzia, kirten ta guztikoa, jatekoak bananduteko erabililla.

Burruka. - Alkar jotzea.

Burrukari. - Burrukan ari darena. Burruka-zalea.

Burrukatu. - Burrukan ari.

Busti. - Urez-edo ezkotu.

Bustialdi. - Busti egitea. / Uretan sartu-urten egitea.

Buztan. - Abere batzuen atzekaldeko soin-atala: Dira, dira, zezenak dira; adar zorrotza, buztana motza. / Agiriko alde: Orrek ez dauka ez bururik, ez buztanik (itxura onik, nundik oratu).

Buztarri. - Idiak-eta batera eroateko zurezko tresna. / Idi-parea; ldi-buztarri bat erosi dot.

Buztartu. - Idiak buztarripean jarri. / Batu, alkartu: Izkeraz buztartuta joaten da sarri.

Buztin. - Menastakia.

- Dagoaneko. - Onezkero.
- Dagonilla. - Urteko zortzigarren illea.
- Damu. - Garbaia; Damu dot zu iraindua.
- Dana. - Guztia; Zana ta dana birrindu dabe atzerritarrok.
- Dandarrez. - Eskegita bezelaxe; erdi-aidean, erdi-arrastaka: Dandarrez bota eban emon eutson ostikadaz.
- Dantza. - Esku-oiñai eraginka ariketa: Kanta ta dantza, askoren bizi-ardatza.
- Dantzari. - Dantzan ari dana: Danboliñaren etxean, guztia dantzari (Iztueta)
- Dardar. - Bein ta barrizko igikera; ikara.
- Dariola. - Dandarrez: Ikusten? Beti daroazu garrikoa dariola, era txarrean.
- Deadar. - Abots bizi ta jaso: Egizue deadar, mendi ta ibar; euskaldunak itzar!
- Deadarka. - Deadar egiñaz.

- Dei. - Norbait adi ipinteko keiñua; itza-edo: Dei egiezu lagunai. Jesus'en Biotzaren Deia. Euzko-Deia.
- Deitu. - Dei egin; Deitu dozuz umeak? / Izena izan; Lur au da sakratua, deitzen da... ia nork igarril
- Denda. - Salerosketak egiteko etxea, lekua: Salduko neunke nire abenda, erosteko aren denda.
- Denpora. - Aldi.
- Deun. - Eleizak alakotzat daukana: Aintzaldut daigun Agate Deuna. / Guztizkoa ta errurik bakoa: Gizon deuna da ori.
- Dingillizka. - Eskegita, lurra ikutu barik.
- Diru. - Gauzen ordainez erabilten dan txanpona; Iru, iru kolkua bete diru!
- Diz-Diz. - Argitasun bizia: Eguzkiak diz-diz dagi ortzean.
- Durundi. - Ots makal-samarra: Kanpaien durundia nire belarrietaraino eltzen zan.

## BERTSOAK

BERTSOA.

Beste izkuntzik galtzen saiatu ez bada Ama Euzkera, zertako datoz atzerritarrek OSO zegona austera? pixti gaizto bat balitz bezela sartu naian auspera; nola ez gera gu altxatuko amari txutik eustera? izan gaitezen seme leialak goitu dedien oster.

(P. M. OTAÑO-1857-1910)

NEURTITZA. Negar dagit biotzez...  
arantza zorrotza  
gabaz eta egunez  
samintzen biotza..

AAPALDIA.

Batek beintzat ba'leki  
neronen samina...  
Ez! ez adi erruki,  
aizkide liraina!

OLERKIA

(J. ZAITEGI)

# BERTSOGINTZA

ETENA. { Euskalerrri laztana, / nire pake-girol  
Gogoz beintzat, zugana / banator berriro

OSKIDEAK. { giro  
berriro

OSKIDETZA. { -iro  
-iro

(J. ZAITEGI)

GOLDAKETAN-Mexico. 1946